

# IRAKASKUNTZA-GIDA

## EGELAPI IKASTAROA, EUTANASIA ARAUTZEN DUEN 3/21 LEGEARI BURUZKO OINARRIZKO PRESTAKUNTZA (LORE)

### ONLINE IKASTAROA – LEHEN EDIZIOA

<https://egelapi.ehu.eus/> plataforma bidez

2022ko urriaren 10etik abenduaren 31ra

## HELBURUA

“Eutanasia arautzen duen 3/21 Legeari buruzko oinarritzko prestakuntza (LORE)” izeneko eGelapi ikastaroak badu izaera akademikoa eta zientifikoa, eta egokia da, gainera, legea oso berria delako eta bizitzaren amaierako asistentzian etapa berri bat ireki duelako. Legearen berritasunarengatik, eta hobeki aplikatzeko, bultzada akademikoa ere behar du; ildo horretan informazio eguneratua, erabilgarria eta zehatza eskaini nahi izan dugu, eta eztabaidarako foroak sortu..

Ikastaroa zuzenduta dago interesa duen pertsona ororentzat, baina bereziki erabilgarria izango da irakaskuntzan, medikuntzan, erizaintzan, gizarte-lanetan, psikologian, zuzenbidean, filosofian, edo beste arlo soziosanitario edo hezitzailetan ari bazara lanean, edo gai horiekin zerikusia duten elkarteetako kideak baldin bazara; izan ere, zuen lan edo jarduerarako baliabideak aurki ditzakezue, baita azterketa eta gogoetarako lankidetzak-esparrua ere.

Ikastaro hau, gainera, koherentea da Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) erakunde akademiko gisa eta Duintasunez Hiltzeko Eskubidearen Elkarteak (DMD) gizarte-mugimendu gisa dituzten helburuekin.

## EDUKIAK

Ikastaroa lau modulutan antolatu dugu (oinarriak, legeria, informazioa eta baliabideak), modulu bakoitzean testuak aukeratuta eta eduki ditzakezun kezkei/galderei erantzuten laguntzeko tresnak sortuta. Horrela, ikastaroko zeregin nagusiak diren testuen irakurketa lasaiaz eta kritikoaz gain, modulu bakoitzean irekitako foroan parte hartzea eta ariketa edo lan labur bat egitea eskatzen da.

**1. MODULUA. OINARRIA:** eutanasiari buruzko 3/21 legea (LORE) eta biziadaren amaierako beste arau batzuk ulertzeko, garrantzitsua da gizarte-eztabaidan dauden oinarriak, argudio etikoak eta eztabaidak aztertzea. Hori da, hain zuzen ere, **oinarri etikoak** izeneko lehen zatian sartu nahi izan duguna, baita **oinarri juridikoak izenekoan ere, non** arauen oinarriei eta haien bilakaera legegileari buruzko edukiak biltzen ditugun. Hirugarren azpiatala bederatzi karpetek osatzen dute, hiltzen laguntzeari buruzko **eztabaida** ohikoenei buruz aritzen direnak, eutanasia eta lagundutako suizidioari buruz bereziki: (1) aldeko eta kontrako argudioak, (2) buruko gaixotasunak, (3) eliza katolikoa, (4) informazio medikoa, (5) adingabeak, (6) nutrizioa eta hidratazioa, (7) kontzientzia-eragozpena, (8) zahartzarua eta (9) aurretiazko borondateak eta dementzia.



Azkenik, lehen modulu honetan hiltzeko laguntzari lotutako **kasu** batzuk ere aurkezten dira, azken hamarkadetan esanguratsuak izan direnak.

**2. MODULUA. LEGERIA:** modulu honetan aurkezten dugu eutanasia arautzen duen 3/2021 Lege Organiko berria (LORE), martxoaren 24koa, eta **autonomia eta legediari** buruzko lehen atal bat ere gehitu dugu, non Europako eta Ameriketako zenbait herrialdetako egoera azaltzen den. Horrela egiazta daiteke ze erlazio dagoen legediaren eta pertsonen autonomia gizartean onartzearen artean; eta herrialdez herrialde jarraitu daiteke autonomia hori babestu eta sustatzeko legeen bilakaera, alderdi asistentzian oro har, eta bizitzaren amaieran bereziki. Herrialde bakoitzari dagokion fitxan zazpi atal azaltzen dira: (1) baimen informatua, (2) tratamenduari uko egitea, (3) aurretiazko borondateak, (4) eutanasia, (5) suizidio lagundua, (6) berme-batzordeak eta (7) kontzientzia-objekzioa.

Moduluaren bigarren atalean, eutanasiari eta suizidio lagunduari buruzko **munduko legediaren mapak, herrialdeen araberako laburpen-txostena eta mapa** horietan aurkezten diren fitxetarako estekak azaltzen dira. Horrela erraz gertatuko zaio bizitzaren amaierako asistentzian buruzko baldintza eta horien bilakaera ezagutu nahi duenari herrialdeka edo gaika sartzea eta konparatzea.

**3. MODULUA. TXOSTENAK:** modulu honetan eutanasiaren aplikazioaren inguruan egindako txostenak bildu ditugu, hiru ataletan banatuta. Lehenak herrialde bakoitzeko bermeen eta ebaluazioaren batzordeek **arauaren aplikazioari buruz** egiten dituzten nahitaezko txostenetako batzuk biltzen ditu, esperientzia gehien **duten** batzordeek sortutako txostenen laburpenarekin batera.

Bigarren atalean, LORE abian jarri eta aplikatzeko prestatu diren **praktika egokien eskuliburuak** eta dokumentuak daude. Bertan ohiko prozedurez gain, nerabezaroan, aniztasunean eta antzeko egoera berezietan jarduteko eta prozesu horiekin zerikusia duten beste alderdi garrantzitsu batzuk ere azaltzen dira.

Azkenik, hirugarren zatian, **material didaktikoak** aurkitu ahal dira, diapositibak, testuetarako estekak eta informazio heterogeneoagoa dituztenak, eskolak, hitzaldiak edo ezagutza zabaltzeko beste modu batzuk prestatzeko baliagarria izango direlakoan.

**4. MODULUA. ZINEMA ETA LITERATURA:** azken modulu honek **filmak, dokumentalak, literatura-lanak eta zine-analisiak** biltzen ditu, azken hamarkadetako adierazpen artistikoaren zati txiki bat, pertsonen bizitzaren amaierari buruzko gaietan zentratuta. Interesgarritzat jotzen dituzuen lanak gehitzeko eta partekatzeko gonbita egingo dizuegu ikastaroan zehar.

## AURKIBIDEA

### 1. modulua. OINARRIAK

1. Oinarri etikoak: sarrera, lehentasunezko bibliografia eta laguntzazkoa
2. Oinarri juridikoak: sarrera, lehentasunezko bibliografia eta laguntzazkoa
3. Eztabaidak: sarrera, aldeko eta kontrako argudioak, buruko gaixotasunak, eliza katolikoa, informazio medikoa, adingabeak, nutrizioa eta hidratazioa, kontzientzia-eragozpena, zahartzaroa eta aurretiazko borondateak eta dementzia.
4. Kasuak
5. FOROA

### 2. modulua. LEGERIA

1. Sarrera
2. LORE
3. Autonomia eta legeria Europan (Alemania, Austria, Belgika, Espainia, Luxenburgo, Herbehereak, Portugal, Suitza eta Frantzia) eta Amerikan (Kanada, Kolonbia, Txile eta AEB)
4. Munduko legeriaren mapak: 2018-21 nazioarteko fitxak eta DMD
5. FOROA

### 3. modulua. TXOSTENAK

1. Sarrera
2. Ebaluazio eta bermeen batzordeen txostenak
3. Praktika egokien eskuliburuak
4. Material didaktikoak
5. FOROA

### 4. modulua. Zinema eta literatura

1. Zinema
2. Liburuak
3. Erreportajeak
4. Zine-analisiak
5. FOROA

## ANTOLAKETA

### DATAK

4. modulua hasieratik egongo da eskuragarri, eta besteak (1.tik 3.erako) irekitzen joango dira lau astean behin, 2022ko urritik abendura bitartean.

1. modulua. OINARRIAK: Urriaren 10a
2. modulua. LEGERIA: Azaroaren 7a
3. modulua. TXOSTENAK: Abenduaren 5a
4. modulua. Zinema eta literatura: urriaren 10etik abenduaren 31ra

### IRAKASLEAK

Mabel Marijuan (koordinazioa): [mabel.marijuan@ehu.eus](mailto:mabel.marijuan@ehu.eus)

Iñaki Alegría (online ikastaroa): [i.alegria@ehu.eus](mailto:i.alegria@ehu.eus)

Elena Gutiérrez (lankidetzatza): [gutierrez001@ikasle.eus](mailto:gutierrez001@ikasle.eus)

Carlos Burón (lankidetzatza): [buron001@alumnos.eus](mailto:buron001@alumnos.eus)

### IKASLEAK

25 plaza

### HIZKUNTZA

Gaztelania

### MATRIKULAZIOA

Aurreinskripzioa egiteko interesdunek mezu elektronikoko bat bidali behar duzue **egela.dmd.upv.ehu@gmail.com** helbidera, ondokoa zehaztuz: izen-abizenak, NANA, lanbidea eta matrikulatzeko arrazoiak.

Eskabideek plaza kopurua gainditzen badute, hautaketa bat egingo da, eta kanpoan gelditzen denak lehentasuna izango du hurrengo ikasturteetan.

Izen-ematea **2022ko irailaren 20tik 30era** izango da. Onartutakoan, matrikula egiteko epea 2022ko urriaren 1etik 7ra izango da.

Ikastaroa doakoa da.

### DEDIKAZIOA

5-10 ordu astean, erabateko malgutasunarekin (4 ECTS)

### EBALUAZIOA

Modulu bakoitzak foro bat du, eta bertan **gutxieneko parte-hartzea** nahitaezkoa da. Modulu bakoitzari dagozkion lau asteak amaitzean, **sintesi-lan labur bat egin beharko da, gai jakin bati erantzunez** eta parekoen arteko ebaluazioa erabiliz.

Ikasturtearen amaieran eskatutako lanak bete dituzten pertsonen zientziagiri bat emango zaie.